


*Egunsentia Nyiragongotik. Lehen planoan kraterren zati bat. Atzean, ezkerrean Mikeno, eta eskubian Karisimbi sumendiak.*



# Nyiragongo

JUAN C. AGIRRE

Goizeko zazpirak dira, Jazten ditut arropak eta bart prestatutako motxila bizkarrean hartu.

Zazpi lagun gara, bost euskaldun eta bi maño. Gure helburua: Niaragongo sumendia. 3470 m.

Niaragongo Virungas parkean dago. Parke honetan zazpi edo zortzi sumendi daude. Niaragongo ez da altuena, baina bai, ziur aski, politena. Orain dela bost edo sei hilabete itzalduta zela. Harez gero ez dago Virungasen sumendi pizturik.

Zazpiok elkartuta furgoneta bila abiatzen gara. Gomatik Niaragongoko baseraino hamabost kilometro daude. Nabariak dira Niaragongok eduki dituen leherketak. Bide guztia labazkoa da. Bide albotan platanadi ugari. Ikusten denez laba hau oso aberatsa da. Furgonetan ordu erdi eginez gero, Parke sarreran gaude eta etxola batetara ordaintzera joan behar dugu. Etxolako zaindaria Niaragongo igotzea 300 zaire dela esaten digu. Guk afrikan hilabete bat daramagu eta trukean ikasi dugu. Ezin dugula hainbeste ordaindu, ikasleak garelako, opor bukaeran gaudela, dirugutxi dagoela... eta abar. Azkenean 200 zaire eta denok gustora.

Liburu batean gure izenez izenpetu. Gidari bat guretzat jartzen dute. Hartzen ditugu motxilak eta gora. Bost orduko ibilaldia gure aurrean.

Hasiera launa du ibilaldia, baina zoritxarrez denbora gutxirako. Laister hasten da aldapa. Ikaragarriko landaretza dago, ingurua «selvático»a da. Adibidez, gidariaren tresna bakarra matxetea da. Aldapa gero eta gogorragoa. Gaizki noa. Ahul nago. Nere barrenean: aldapa madarikatu hau! Motxila madarikatu hau!

—«Asko geratzen al zaigu?» galdetzen diogu gidariari.

—«Bi ordu»

Eta handik ordu erdira:

—«Asko geratzen al zaigu?»

—«Bi ordu»

Nere barrenean: tontotuta ote gure gidaria? Jaramonik ez egitea erabakitzen dut.

Bitartean, bidean, leku batzuetan lur barrenetik keak irtetzen du. Ke hau zufrea da, noski.

Lau ordu ibiliz gero aterpetara heltzen gara. Hiru dira. Beheko aterpea, barrutik, suntsiturik dago, zorurik gabe. Erdikoak zoru erdia du bakarrik. Goiko aterpea da ondoren dagoena. Nahiz eta lehiok apurtuta eduki, zorua osoa du.

Eskerrak heldu garelako! Leher eginda nago! Hemendik sumendi tontorreraino hogei minutu behar dira. Eseritzen gara, ura edan eta astia hartu berrindartzeko. Jan ondoren, motxilarik gabe, eta poliki poliki gailurrerantz abiatzen gara.

Ostia!! itolarria barren barrenetik.

Gailurrean nago eta nere begi aurrean izugarriko kratera. Borobil borobila da. Bere diametroa bi kilometrokoa, eta paretan altuera 350 m-koa. Kristoren kratera!

Berrogeitabost minutu egoten gara goian. Zufre usaia nabari da. Ke asko dago.

Jaitsi, afaldu eta aterpera lo egitera. Seiretarako ilun dago. hemen ekuadoraren ondoan egunak eta gauak berdinak dira.

Hurrengo egunean egunsentian jaikitzen gara. Gailurretik eguzkiaren irtera ikusi nahi dugu. Egunsenti eder ederra da. Bederatziak inguruan jaisten hasten gara. Hiru ordutan, Parke sarreran gaude berriro. Furgoneta Gomara itzultzeko zai dago. Txoferrak esaten duenez, sumendi honek orain dela sei urte lehertu zuen. Labazko erreka ia ia Goma bertaraino heldu zuen. Berrehun pertsona hil ziren